



HEZKUNTZA BERRIZTATZEKO ZUZENDARIAREN 2020KO OTSAILAREN 5EKO EBAZPENEAN EZARRITAKO DATAK ALDATZEA. EBAZPEN HORREN BIDEZ, ARTE PLASTIKOETAKO ETA DISEINUKO IKASKETA PROFESIONALETAKO GOI-MAILAKO HEZIKETA-ZIKLOETARAKO SARBIDE-PROBAK ETA ONARPENA ARAUTU ZIREN, ETA HEZIKETA-ZIKLO HORIETARA SARTZEKO 2020/21 IKASTURTERAKO PROBETARAKO DEIALDIA EGIN ZEN.

Gaur egun bizi dugun egoera dela-eta, Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariaren 2020ko otsailaren 5eko Ebazpenean ezarritako datak aldatu dira. Ebazpen horren bidez, arte plastikoetako eta diseinuko ikasketa profesionaletako goi-mailako heziketa-zikloetarako sarbide-probak eta onarpena arautu ziren

- 2020ko sarrera-probetan izena emateko epea maiatzaren 18tik ekainaren 1era izango da.
- 2020ko onarpenerako izena emateko epea maiatzaren 18tik ekainaren 12ra izango da
- Ekainaren 2an, Idarte Arte eta Goi Mailako Diseinu Eskolaren webgunean argitaratuko da proban parte hartzeko onartuak izan diren eta, hala badagokio, baztertuak izan diren pertsonen zerrenda, baztertzeko arrazoiak adierazita. Proba egiteko onartutakoen eta, hala badagokio, baztertutakoen behin betiko zerrenda ekainaren 4an argitaratuko da.
- Arte plastikoetako eta diseinuko ikasketa profesionaletako goi-mailako heziketa-zikloetarako ohiko proba espezifikoa egiteko eguna 2020ko ekainaren 6an izango da, 14:30etan, IDARTE diseinuko Arte eta Goi Mailako Eskolan.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko apirilaren 24a..